

## **BEZEROEKIN HARREMANA:**

Arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu gure bezeroak izan ditzaketen edozein zalantza edo arazo konpontzeko. Gainera, webgune orri bat sortzen dugu, foro modukoa, gazteak eta enpresak harreman zuzena izan dezaten eta haien esperientziak eta aurrerapen pertsonalak parteka dezaketen haien artean.

Gure bezeroekin harremana estutzeko eta errazteko honako baliabideak izango ditugu:

- Aholkularitza pertsonalizatuarekin banan-banako aholkularitza eskainiko diegu gure bezeroei gure plataformaren bidez, enplegu-bilaketan, garapen profesianean, arazoan, galderen eta lan aukeren azterketari buruzko orientazioa emanez.
- Foro baten bidez, online komunitate bat sortzea sustatuko dugu, erabiltzaileek elkarri eragiteko, esperientziak partekatzeko eta elkarri laguntza emateko aukera izan dezaten. Komunitate hori ezagutzak trukatzeko eta sare profesionalak sortzeko gune bat izango da non usuario bakoitzak gure plataformari buruzko iritziak, aholkuak eta hobekuntzak eskeini ditzake.
- Eguneratze eta jakinarazpen pertsonalizatuekin, lan-aukera berriei eta merkatu laboralari buruzko eguneratze erregularrak emango ditugu, hain zuzen ere, gure gaur egungo gizarteak aldakuntza konstantean dago eta eguneratze hauekin laguntzen diegu gure bezeroei aldakuntzetara moldetzako. Gainera, jakinarazpen pertsonalizatuek erabiltzaileek beren profiletara hobekien egokitzen diren aukeren berri izatea bermatuko dute.
- Tokiko eta nazioarteko networking-ekitaldien bidez, erabiltzaileak aukera izango dute enprekin harreman zuzen bat izatea. Gainera, enprekin erlazioa izatea helburua nagusia izan arren, bezeroak hezkuntza-erakundeekin eta sektoreko beste profesional batzuekin erlazionatzeko aukera izango dute.